

BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua, Roompaint izeneko, paretak margotzeko balio duen robot inteligente bat da. Lurrean kaxa bat egongo da eta bertatik robota aterako da. Robotaren azpialdean esku robotiko bat txertatuta egongo da. Esku robotikoa hodi estu bat itsatsita eramango du pintura Roompaintera iristeko. Robota eta kaxaren arteko lotura hodi hori izango da eta aipatu dugun bezala hodiaren bukaeran esku robotikoa egongo da. Kaxaren barruan konpartimentu bat egongo da pinturarentzako eta sobratzen den lekua Robota gordetzeko da. Gure robotaren kaxan pantaila taktil bat eramango du eta horretatik dituen funtzio guztiak kontrolatu ahalko dira. Robota kargatzeko, itzali egin behar da eta bera bakarrik kargatzen da kaxaren barruan.

Roompaintari esker, dirua eta denbora aurreztuko duzu bera bakarrik margotzen duelako eta bukatzen duenean bakarrik bueltatzen da kaxara. Programatu daitekeenez zuk nahi duzun denbora funtzionatzen egongo da. Gure produktua saltzeaz aparte, alokatzeko aukera egongo da ere eta bi gauza hauek leku berean egin ahal izango dira, hau da, bi balio proposamen desberdin ditugu; produktua saltzearena adituentzat bideratua egongo da batez ere adituek berrizatzeko eta proiektu berriak egiteko eta alokatzearena noizbehinka erabiliko dutenentzat bideratuta dago edo margotzearena beraiena ez denentzako

Gure produktua eskuratzea oso erraza da. Internetetik erosi daiteke eta hainbat dendetan salgai egongo da. Leroy Merlin, Brico depôt, Akí...bezalakoetan egongo da, denda hauetan gainera Roompainta behar duen pintura eskuratu ahalko dute.

